

«La Négresse»: izenaren jatorria

Sar hitza: Zergatik eta noiztik du «La Négresse» auzoak izen hori? Galdera horri erantzuteko, Jean-Loup Ménochet Biarritzeko historialariak aditu talde bat elkartu du: Xarles Bidegain hizkuntzalaria, Jacques de Cauna irakaslea eta Gaskoniako eta Haitiko historialaria, André Duquenne penintsulako gerretan aditua den doktorea, eta Miquèu Baris, toponimia gaskoian aditua. Elkarrekin, urteetan zehar hedatu diren bertsioak aztertu dituzte 2020an «Les Bask'elles» elkarteak abiatu gogoetatik abiatuz. Ikerketa eta azterketa horien emaitzak aurkeztuko ditugu hemen.

Auzo gaztea

Brindos eta Mouriscot lakuen eta paduren arteko haran batean kokatua den Négresse auzoa Bordeleren eta Espainiaren arteko bide handiaren bi aldetan hedatzen da. 1830 aitzin, oraindik ez zen auzorik aipatzen. Bizilekuak hedatuak ziren, eta ostatu bat, teileria bat eta kantonierren etxea salbu –errege-bidearen eta Biarritzetik Arbonarako bidearen arteko bidegurutzean kokatuak zirenak–, landa-eremu bat zen: hazkuntza, fruitu-baratzeak eta zohikaztegien ustiatzea. Iparraldeko eta hegoaldeko muinoetan Brindos, Pitcho eta Barouillet etxe aberatsak zeuden. Sektore osoaren berezitasunetako bat eraikuntzan baliatzen ziren buztin hori eta marroi azaleramenduak dira, eta, batez ere, Mouriscot lakuaren hegoaldean zeramikarako kalitate handia duen buztin gorriaren azaleramenduak. Errege-bidearen antolamenduak XVIII. mendean Espainiarekiko trukaketak emendatu bazituen ere, Baiona eta Hendaia trenetaz lotzen dituen linearen irekitzeak sorrarazi zuen auzoa: oporraldiak pasatzera heldu zirenen harrera eta herri-barnerako garraioa, merkantzien errezibitzea edo igortzea, materialen biltzea, eta etxebizitzak azpi-egitura horietatik hurbil. 1879an Auguste Moussempèsek Negrésseko teileria sortu zuen. Lantegi garrantzitsu horrek enplegua sortu zuen eta geltokiaren inguruko jarduera osagarriak emendatu zituen.

XX. mende hastapenean, auzoak **langileak erakartzen zituen, batez ere Landesetatik eta Bearnetik etorriak**. Fenomeno horrek segitu zuen herri-barnera joaten zen trenbidea eraikitzean 1908tik goiti. Aitzurlari espainiarrak enplegatu ziren Marion lakuko tunela zultzeko eta beste maniobra batzuetarako eta Frantziaren Hego-Mendebaldetik beste hainbat teknikari eta langile etorri ziren. Batzuk Biarritzen gelditu ziren eta auzoko biztanleria emendatu zen.

Urte zoroen garaia: oporrak pasatzera heldu zirenak errepide nagusira edo geltokira joaten ziren zilindria handiko ibilgailuetan. Auzoko bizia piztu zen. Ezantza hornigailuak sortu ziren Bertière edo Darrieutorten. Azken honek, geltokiko ostatu-taxiaren ondotik, bidegurutzeko ezantza ireki zuen. Saltegiek, lantegiek, fabrika batek eta biltegiek, baita ikastetxe batek, parrokiako salak eta trinkete ederrak ere, auzo ireki eta herrikoa osatu zuten. 1946an, auzo horretan ospatu zuen Biarritzek gerrako presoentzako itzulera. Auzo horretan, bestalde, eraiki ziren hiriko lehen bizitegi sozialak, Petricot baino 10 urte lehenago. Garai hartan, errepidearen, geltokiaren edo aerodromo berriaren bidez Hogeita hamar Loriotsuen urteak iritsi ziren auzora. Herriko etxeak akanpalekua eraiki zuen eskolaren eta geltokiaren artean. Oihal etxe koloretan, jean galtzamatzen eta gitarrak alaituriko gaualdien erresuma izan zen akanpalekua haurren jostaleku bilakatu da.

Urte horiek onak izan ziren La Négresse auzoarentzat. Jendea ongi bizi zen bertan, irribarrea denetan zen: heldu ziren turisten bisaitan, bakantziarren autoak salbatzen zituen mekanikariarenean, elikagaiak saltzen zizkien saltzailearenean, eta, nola ez, Panchoa ostatuko gelan tindaturiko Antillako emazte ederrarenean.

Baina garaiak aldatu ziren. Fabrikak atea hetsi zituen, geltokiko aktibitatea apaldu zen, autopistaren ondorioz, bertan geldialdia egiten zutenen kopurua txikitu zen... Zerua ere ilundu zen: 1976an eguzkia teilatuetara heltzen bazen ere, 1977an ez zen gehiago hala. Betoizko estaldura bat sortu zen etxeen gainean... Zubibidea eraiki zuten auzogunearen gainetik... Batzuentzat gozagarri, besteentzat desesperagarri. Saltegiak, irribarreak bezala, hetsi ziren. Eta polemika agertu zen. Auzoa krisian murgildua zen momentuan, protestak abiatu ziren auzoaren izena salatzeko. Bide hori batzuentzat legitimoa zen, beste batzuentzat batere.

Baina... Nondik heldu da izena?

Hainbat bertsio existitzen dira, eta beste hainbeste kontrako iritzi daude. Dena lausoa da, eta argiago ikusteko, ikerlari independente talde bat bildu da «La Négresse» izenaren jatorriari buruz ikertzeko. Helburua ez da izan aldarrikapen bat edo bestea sostengatzea, iturrietan oinarrituz hipotesia bakoitza aztertzea eta egiaztatzea baizik: metodologia eta zentzu ona, emaitzekiko aurreiritzirik edo kezkarik gabe. Begirada neutro eta berri batekin argitu da miarritzarren memoriako eremu ilun hori.

Mende bakoitzean hainbat bertsio

Lehen bi bertsio agertu ziren Frantziako Bigarren Inperioaren bukaeran. Lehen bertsioaren arabera, 1813an ostatuaren jabe zen emaztea beltzarana omen zen eta Napoleonen soldaduek «Négresse» izengoitia eman omen zioten. Bigarren bertsioa aduanako buru batek kontatua da eta dirudienez, 1815. urte inguruan, guarda batzuk beren lantokia horrela deitzen hasi ziren, ondoko etxean emazte beltz bat bizi baitzen. Baina aski fite, batzuetan forma biziki literarioekin, XX. mendeko idatziek bertsio horiek deformatu edo batu zituzten... Ostalari beltzarana beltza bilakatu zen, esklabu ohia eta bere buruaz beste egin omen zuen Mouriscot lakuan. Deformazioa edo ahoberokeria... 2008an, desmartxa zientifiko baten bidez, hizkuntzalari gaskoi batzuek interpretazio toponimiko bat proposatu zuten. Puntua egin dezagun!

Aduanako guarden begirada

"Garaian, auzoak Arosta zuen izena, baina duela berrogeita hamar urte baino pixka bat lehenago, Amerikako kolono bat etorri zen emazte beltz batekin. Aduanako guardak inguruetan ibiltzen eta haiek eman zioten La Négresse izena. »

Ikerketek baieztatu dute 1810 eta 1822 artean, aduana-etxearen ondoko etxe bat Karibearekin loturak zituen gizon batena izan zela: Gérard Rodriguesena.

Itsas armadako aitzindari izan zen. Biarritzen sortu zen 1773an marinel eta merkatari familia batean. Ibilbide osoa itsasoan egin zuen eta hainbat aldiz joan zen Santo Domingora eta Antilletara. 1803an, Tobagon desagertu zen, Frantziak irla galdu zuelarik. Zazpi urte berantago, 1810eko apirilaren 5an, oraindik agertu ez zen Gérard Rodriguesek bere prokuradorearen bidez, Etienne Ducourrau irakaslearen bidez, Biarritzeko Sorhainde etxea erosi zuen, 7 hektarea lurrekin. 1812an, britainiarren presondegi batean agertzen da bere arrastoa berriz eta Napoleon I.a erori ondotik askatu zuten. Itzuli ondotik bere jabetzaz goza zezakeen. 1822ko ekainaren 11an, garuneko kommozio baten ondorioz

zendu zen, seme-alabarik gabe. Berari buruz kontsultaturiko dokumentu guzietan, Departamenduko Artxiboetan edo Defentsako Zerbitzu Historikoko dossier indibidualean, ez da emazte edo lagun beltzik aipatzen. Guarden lekukotza dudan ezarri behar dugu? Nahiz eta kolonietatik etorritako bikotekide baten presentziaren froga «ofizialik» ez izan, posible da Gérard Rodriguesek harreman sendoak izatea eskualdean bizi ziren herritar beltzaren edo beltzekin. Nahiz eta dokumentuetan ez den informazio handirik garai hartan Biarritzen bizi ziren pertsona beltzen inguruan, Biarritzeko gertakari batek, 1815eko azaroan gertatuak, arreta deitzen du.

Etxe «kolonial» bat?

Gérard Rodriguesen osaba, Jean Manesca, landa-leku jabe boteretsua zen eta Haitiko Cap hirian bizi zen. 1774an, seme bat izan zuen Marie-Rosekin, bere esklabuetako batekin. Thomas semetzat ezagutu zuen, baina 1778an zendu zelarik, haurra osaba-izeben etxera igorria izan zen Biarritzera. Hauek abandonatu zuten eta Manesca gaztea Biarritzeko «Chapeau Rouge» etxe aberatseko kapitainaren emazteak hezi zuen. Thomas itsas-armadako kapitain bilakatu eta aberastu zen. Tokiko burgesiarekin ibiltzen zen eta Marianne Loustaurekin ezkondu zen: 37 urteko angeluarra eta Jean-Bernard Hiriart zurginaren alarguna. Zeremonia hurbilekoen presentzian iragan zen, bertan ziren Silhouette, Dalbarade eta Lavernis famulietako kideak. San Martinen ospatu zen, 1815eko azaroaren 5ean.

Momentu horretan, Gérard Rodrigues Ingalaterratik sartu berria zen eta ezkontzako gomit batzuk bere etxean hartu zituen. Gertakari hau guardek Rodriguesen etxean emazte beltz bat bizi zela adierazi zuten garaikoa da. Kointzidentzia bitxia. Baina gertakari hori puntuala izan zen, eta egiazki gertatu bazen ere, ezin du auzoaren izena justifikatu. Beste nonbait bilatzen segitu behar da.

Ostatua eta soldaduak

«1705ean, gainen auzoaren zati bat Harausta deitzen zen; 1813an, La Nègresse izena eman zitzaion, soldaduek ostatua atxikitzen zuen emazte beltzarenari emandako izengoitia hartuz».

1865. urte inguruan, P. Thomas Ducourau naturalistak Biarritzeko fauna eta landaredia aztertu zuen. Bere kaieretan idatzi zuen «La Nègresse» izenaren jatorria ostalari beltzarenaren izengoitia zela. Ez zen emazte beltz bat... Alta, kontaketa horretatik abiatuta agertu zen polemikak eragin dituen bertsioko berriagoa.

1813an, ostalariak Marie Recart (Derrecart edo Recard) eta bere senarra, Bertrand Debayle (edo Bayle) ziren. Bertrand Bearnokoa zen eta Marie Biarritzeko familia zahar bateko kide. 1810ean 45 urte zituen. 1840ko mapa batean «Harausta edo Lanegresse» deitua den ostatuan identifikatu den emazte bakarra da. Emazte horrek azal beltzarana ote zuen? Sault marexalaren soldaduak zerbitzatu ote zituen 1813an? Lehen galderaren erantzuna enigma bat bada ere, bigarrenarena badugu.

Gudu zelai bat

«Lur puska bakoitza tematsuki defendatu zen, eta ondorioz, etxalde bakoitzak, baratze bakoitzak, bizileku bakoitzak gerrako kalte handiak jasan zituen. Bidearen bi aldeetan ikusten zena penagarria zen. Etxeak eta etxolak hondatuak ziren, hespilak eta landaturiko pentzeak suntsituak eta hutsak»⁹.

1813ko azaroan, Wellington aitzinamendu handiak egiten ari zen Frantzian eta parean, Soult tek esku hartu eta Baionaren hegoaldean fronte bat antolatzen entseatu zen etsaia geldiarazteko. Tropak Pitchon kokatu zituen. Ingelesak Barrouillet hartu zuten. Bi posizio horien artean Harausta zegoen.

Borrokaldi bortitzak izan ziren 1813ra arte. Kanoikaden azpian, bizilekuak suntsitu edo andeatu ziren. Baldintza horietan, herritarrek auzoa utzi zuten eta ostatua hetsi eta osoki suntsitu zen gatazkan. Hainbat etxeren kasua izan zen ere: Martin Petit, teiletegia edota Rodriguesen etxearena. Pirinio Atlantikoetako Artxiboetan atzeman daitezkeen agiri eta eskaeretan ikus daitezke andeaturiko ondasunen jabeek sinaturiko kalte-ordain eskaerak.

Beraz, 1813an, Marie Recartek ezin izan zituen soldaduak errezibitu Haraustan zuen ostatuan...

Eta azal beltzarana?

Ducourauren notan «azal beltzarana zuen emazte bat» aipatzen da. Aipamen hori ohikoa zen garaian euskal emazteen ezaugarritzeko, bereziki 1813-14ko borrokaldietan parte hartu zuten militar ingelesen memorietan. Bidasoara heltzean, gizon horiek harrituak eta erakarriak sentitu ziren emazteen azal beltzaranarekin, izan ere, hegoaldean ez bezala, hemen jantzi «laburrak», zituzten, besoak eta zangoak airean. Inpresio horretan eragina izan zuen eremu horretara uda bukaeran iristeak. Biarritzeko Portu Zaharrean, non ez zen gatazkarik eta soldadu ingelesak pausatzen ziren, komentarioek bat egiten zuten: miarritzarrak ederrak eta beltzaranak ziren.

«Izaki horien bisaia adierazgarria [...], hortz zuriak eta azal beltzarana biziki atsegingarria da».

Irudimena sustatzen duten bertsoak

Azkenean, lehen bi bertsoen azterketak ondorioztatu du ezin dutela horiek bakarrik auzoaren izenaren jatorria azaldu. Baina, biak uztarturik, istorio berri bat idazten dute eta irudimena pizten... Egia beste nonbait gordea da agian... Zergatik ez mapetan?

Larhun eta La Négresse

GPSaren garai hauetan, ahantzia dugu mapa edo plano batek teknologia aurreratuenek baino funtzio konplexuagoak dituela. 2006an, Frantziako Erakunde Geografikoak toponimia ulertzeko beharrezko terminoen hiztegi bat argitaratu zuen. Erreferentziazko lan horretan irakur daitezkeen bezala, «tokiko hizkuntzen ezagutza gakoa da toponimoen ulertzeko». Horregatik, 1743 eta 1865 artean argitaraturiko Biarritzeko mapak xeheki irakurtzean, «La Négresse» toponimoa ulertzeko oinarriko seinaleak agertzen dira. Hizkuntzalari gaskoi batzuek hartu zuten bide hori.

Antzinako mapa guziek puntu komun bat dute: toki izenen ortografia aniztasuna: adibidez, Sorhande batzuetan Sorhando idazten da, edota Sorhainde, sorhondo, sorhonde, baita Sorainde, Sorande edo mendiarena da, kartografo batek 1867an frantsesez «La Rhune» idatzi baitzuen (eta geroztik hala idazten segitzen da). La Négresse izena ere intentzio berarekin sortu ote zen?

1840ko Biarritzeren mapak lehen erantzun bat ematen digu: «Harausta edo Lanegrresse» toponimoan, euskal izena, «Harausta», eta izen gaskoia «Lanegrresse» aipatzen dira ondoan. **Harausta (edo Harrausta, Herausta, Herrausta, Harosta) hitzak «hautsa dagoen lekua» erran nahi du. Lanegrresse (edo Lannegrresse, lanegrasse edo Lannegrasse), gaskoiz, «buztinezko larrea» da. Sorandou ere. Fenomeno horren arrazoa euskararen edo gaskoiaren transkripzio akatsak dira, bereziki bokalen aldetik. Cassiniren garaitik aitzina (XVIII.) eta are gehiago Frantziako Bigarren Inperioko Aitzindaritzaren Gorenaren mapekin, Frantziar administrazioak toponimoak frantsestu zituen eta batzuetan emaitzak harrigarriak dira. Adibide ezagunenetako bat Larhun.**

Hizkuntza bakoitzeko izenak toki beraren izaera aipatzen du: buztinak, zapatzen delarik, hauts desatsegin bat botatzen du. Gainera, XIX. mendeko mapa guzietan Biarritzeko eremu horretan «larreak», «zohikaztegiak», «buztinlariak» eta «teileriak» agertzen dira. Frantziako Erakunde Geografikoan eta Meatze eta geologia azterketen Bulegoan «Lanegresse» toponimoa, «Lannegrasse» gisa frantsestua izan dena baliatzen da buztinaren ustiapen eremuetan eta ekoizpen azpi-egiturak dituzten eremuetan. Lur bera, izen bera, Girondatik Pirinioetara.

Euskara, gaskoia, frantsesa

Baina nola esplikatzen da Haraustatik La Négresse toponimora pasatzea?

Hizkuntzalariak ados dira errateko gaskoi idatziak euskal toponimia ordezkatu duela pixkanaka. Fenomeno hori azkartu zen Antzinako Erregimenean eta XIX. mendetik aitzina izenen frantsestea gero eta gehiago inposatu zen. Testuinguru horretan gertatzen da Harausta/Herausta toponimotik Lanegresse/Lanegrasse toponimora pasatzea. Baina, 1850etik goiti, izena fonetikoki transkribatzen da eta bi hitzetan idazten hasten da, artikulatu mugatu bat ezarri lehen artikulurik ez zen tokian: Lanegresse «La Négresse» bilakatu zen.

Geltokiari eta Biarritzeko herri-barnera doan errepideari izen hori ezartzeak, 1859an, toponimoa ofizial egin zuen eta bere hastapeneko zentzua osoki deformatu zuen... Emazte bat agertu zen!

Garai hartan, Anton Abadia esploratzaile eta geografoak praktika bera salatu zuen bere gaztelutik ikusten zuen mendiaren inguruan:

«Hemendik hurbil Larrun dugu (larr, larrea eta un edo hun, on) baina herri honen gainean dugun 900 metroko mendiak izen bera badu ere, La Rhune idazten da, Cassiniren ortografia miresgarriarekin, frantseseko bi hitz balira bezala. Idazteko modu horrek nahasirik, turistek gure aitzinean Rhune handia eta Rhune txikia aipatzen dituzte, Eskandinaviako erruniko edo antzinako idazkera oroitarazten duena... »

Iraultza bat?

Turistek Larhun mendiaren parean Eskandinaviar eta mitologia gerlariak amesten zuten bitartean, miarritarrek emazte beltzaren bat biziarazten zuten, «La Négresse»...

Emazte beltzaren bat, baina ez esklabua. Emazte libre, atsegin eta integratu bat. Auzoko heroi bakarra!

Hori dena gertatu da idazkera akats batek ikono bat sorrarazi zuelako eta gaskoizko hitzaren zentzua aldatzeak leienda harrigarri bat ekarri zuelako... Istorioa ederra izan zitekeen, baita dibertigarria ere... Baina hitz horrek beste zerbait iradokitzen du gaur egun: mina, gorrotoa, inegalitateak. Ahantzi behar ote da? Ezabatu behar ote da? Defendatu eta ekin behar ote da?

Buztinetik emaztea sortu da eta emaztea hautsera itzuli da... Ziklo baten bukaera, iraultza berri baten hasiera. Noraino heldu gara? «*Gustu onak erabaki beharko du desitxuratutako izen bat atxiki, ofiziala bada ere, edo tokiko izena berreskuratuz, bere egia eta oroitzapenetik*», Anton Abadia.